

## **KORRIKA 16ren OMENALDI-DOKUMENTALA**

Korrikak omenaldi gisa dokumental bat egin du aurtengo ediziorako. Dokumental hau **MARTXOAREN 24AN, ARRATSALDEKO 18:30ETAN, LARRAULGO KULTURETXEAN** ipiniko da.

Dokumentalaren ezaugarriak honako hauek dira:

### **1.- Dokumentalaren egitasmoa:**

Martxoaren 26ean Tuteratik hasi eta Apirilaren 5ean Gasteizen bukatuko den Korrika 16k "Ongi etorri" mezua du ardatza. Honekin, euskaraz bizi nahi dugunon herrira ongi etorria ematea du xede, gure hizkuntzara hurbildu direnei edo hurbildu nahi dutenei hain zuzen ere.

Ongi etorri honen harira, azken korrika guztietan izan den Omenaldia aurtengoan mezu nagusiari jarraiki egitea pentsatu da. Omenduak, kanpotik etorritakoak edota bertako euskaldun galduak izanik, euskara ikasi, erabili, gure kulturaz gozatu, berari ekarpen euskalduna egin eta belaunaldiz belaunaldi gure hizkuntza transmititu duten milaka familia horiek izango dira.

Omenaldi hau baina, aurtengoan modu berritzaile batean egitea pentsatu dugu. Teknologia berriei helduz, ikus-entzunezko dokumental bat egingo da, omenaldi hau ekitaldi ofizialean transmititzeaz gain, ondoren Euskal Herriko gainontzeko herrietara hurbildu ahal izateko. Modu honetan omenaldia omendu guzti hauei hurbildu ahal izateko.

Omenaldi honek bestalde, badu beste xede gehigarri bat. Dokumentalean azalduko diren pertsona guztien ekarpena eta konpromisoa azaleratuko denez, oraindik euskaldundu gabe daudenentzako jarraipen-eredu izango baita.

### **2.- Helburua:**

Arestian aipatutako helburuez gain, dokumental honen bidez beste hainbat alor jorratu ahalko dira. Dokumental honetan euskararen definizioa edo esanahia gehiago osotuko duten gaiak azalduko dira, bere garrantzia indarberrituko dutenak hein batean:

Euskarara iristeko bide desberdinak erakutsiko dira, arrazoi intimoak, politikoak, sozialak... Era berean euskara hizkuntza bat baino gehiago dela azalduko da; bizitzeko modu bat, zure herriarekiko konpromisoa, historiarekiko konpromisoa, ondorengoekiko ardurak, mundua ikusteko betaurrekoak, bizitza sentitzeko kode bat, hizkuntza izaki testuingurura integratzeko zubia eta abar.

### **3.- Edukiak eta estiloa:**

- Dokumentalak lau perfil landuko ditu:
  - **Oraingo atzerritarra:** Rami. Hizkuntza paisaiari lotua ikusten duen Bereberearra. Goizuetan bizi da eta euskara integratziorako lehen pausoa dela ez du zalantzarik.
  - **Estatutik etorritako atzerritarra:** Tereixa. Lan bila Euskal Herrira etorritako Galega. Euskaraz bizi da Portugaleten eta irakaslea da. Itzulpen lanak egin ditu, bere kasara, Sarrionaindia esaterako.
  - **Euskaldun galdua:** Arratiarra jaiotzez, baina txikitatik Gasteizen bizitako gizonezkoa. Gerra osteko giroagatik euskara galdutakoa eta Abetxuko auzoan berriz berreskuratutakoa, non eta Gasteizko auzorik erdaldunenean.
  - **Euskaldun galdua:** Xiberuan jaio eta Parisera bizitzera joandako emakumezkoa. Euskara txikitan bazekien, baina han galdu eta hona itzulitakoan berreskuratu zuen. Egun irakaslea da.
- Pertsona hauen testigantzak elkarrizketa bidez jasoko dira eta gai hauek jorratuko dituzte:
  - Bidai geografikoa; beren jatorrira joko da.
  - Bidai intimoa; hizkuntzaren bidaia.
  - Bidai horien arrazoi eta gakoak.
  - Euskarak beraientzat suposatzen duena; finean euskara beraientzat zer den.
- Formatuari erreparatuz, grabaketa eta lehen proiektzioa HD euskarrian egingo da. Ondoren formatu digitalera pasako da erabilerrazagoa izateko, DVD formatura alegia.

### **4.- Egileak:**

Orio produkzioak.

Gidoia eta zuzendaritza: Jon Maia.

Zuzendari ordea: Eriz Zapirain.